

2012- 2013 IKASTURTEA



PARTAIDEAK: Bertan 592 ikaslek hartu zuten parte, hauek 27 gelatan banatuak zeuden. 15 Urdanetatik eta 12 jakintzatik (Jakintza 277 ikasle eta Urdanetatik 315 ikasle).

DATA: Apirilak 15 eta 27 bitartean

METODOLOGIA ekintza antolamendua (burututako bilerak, burutze faseak eta ebaluazioa nola egiten den):

BALIABIDEAK:

Gelak iristean bisita gidatuak egiten zituen pertsonaiak barrenako sarreran harrera egin ondoren 2 taldetan banatzen genituen.

Erdiak erakusketan zehar bisita gidatua egiten zuten bitartean, beste erdiak dinamizatzaile batekin material didaktikoa lantzerako Barrenako beheko solairura joaten ziren. Ondoren talde hauek beraien artean aldaketa egiten zuten eta bisita gidatua egin zutenak material didaktikoa lantzerako joaten ziren eta alderantziz.

Guzti hau egin ondoren berriro gela guztia elkartu eta haur liburutegian bakarriketa antzetzua izaten zuen Livingstong esploratzailearen eskutik.

Ekintza zenbakietan: 9 egun, 27 gela, 592 ikasle, 2 ikastetxe, 54 bisita gidatu, 27 bakarriketa antzettu.

BALORAZIOA:

Irakasleek dinamizatzailearekin egotean, (ikasleek material didaktikoa lantzen zuten bitartean) ekintza goraipatu egiten zuten, bai ekintza bere osotasunean eta baita jasotako tratua pertsonalizatua ere.

Ikasleak berriz oso pozik jaisten ziren bisita gidatua egin ondoren material didaktikoa lantzerako Livingstong " xelebrearekin " oso ongi pasa zutela esanaz eta oso polita izan zela komentatuaz.

Dar-Dar en balorazioa

Ekintza oso ongi joan zen, bai ikasleak eta baita irakasleak ere oso gustura egon ziren.

Bisita gidatuetan ikasleek ekintza interaktibo honetan parte oso ondo hartu zuten errespetu osoz eta interes handia ezarriaz.

Uste dugu kasu honetan oso garrantzitsua izan zela bisita gidatu hauek ikasleen

partaidetza bilatzea eta pertsonaia batez aurkeztuak izatea.

Ikasleak beheko solairura jaistean ere oso ongi portatu ziren isiltasuna mantenduz eta behar bezala portatuz.

Beheko liburutegira iristean harrituta geratzen ziren ia inork ez bait zuen Barrenako parte hau ezagutzen.

Ipuin kontaketa ere ikasleak errespetuz portatu ziren, gainera eskatutako zatietan parte hartzen zuten eta gustura egon ziren.

5 eta 10 urte bitarteko ikasleei mugatzea garrantzitsua izan zen, 5 urtetik beherakoak txikiegiak baitira eta 10etik gorakoak ez zuten jarrera egokia izango seguruena.

Ekintzaren kokapena:

Gauza bakoitza barrenako kokapen ezberdinetan lantzeak bere alde positiboak eta negatiboak izan zituen.

Positiboen artean material didaktikoa lantzeko garaian ikasleek zuten lasaitasuna azpimarratuko genuke.

Gainera ikasle askorentzat beheko solairuan zer zegoen ikustea oso polita izan zen.

Honetaz gaien ondoren zetorren taldea ordua baino lehenago iritsi ezker oso egokia sortatu zen bakarrizketa antzeztua haur liburutegian egitea.

Alde negatiboak:

Denbora galdu genuen haurrak gora eta behera ibiltzean, ekintza honek zuen ordutegi mugatuagatik arazo txiki bat izan zen hau.

Ikastetxeek jarri zituzten ordutegiak eta noski jangelara edo autobusera iritsi beharrek ekintzaren iraupena mugatu zuen. Bestela gelako 15 minutu gehiago iraungo zuen.

Erakusketaren kokapena:

Jendeak ikus zezan leku oso egokian ezarria zegoen, halere batzuetan pasilloan hitzegiten geratzen zen jendeak aktoreari zailtasunak sortu zizkion.

Baliteke barrenako arduradunengandik pixka bat urruti geratu izana eta agian honegatik panel batzuk margoztatuak agertu ziren.

Gure balorazioa oso positiboa da Ikastetxeek oso ongi aprobetxatu zuten ekintza eta atzeritik etorritako hainbat haur edo gurasoak atzeritarrek dituzten hainbat haur protagonista sentiaraztea beraien istorioa kontatuz oso garrantzitsua izan zen.